



**LEGAZPIKO
UDALA**

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

Alkatetzaren jarraibidea, udalerriko eremu jakin batzuetan ikuskizun publikoak baimentzeari buruzkoa

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen Lehen Xedapen Gehigarriak adierazten duenez, Udalek ematen dituzten arauen artean daude "Alkatetzaren Dekretuak eta Jarraibideak: Alkateak bere eskumenen esparruan emandako xedapen orokorrak, antolaketa izaerakoak zein gizarte-antolamendukoak".

Alkatetza honen eskumena da, zalantzarik gabe, espazio publikoak erabiltzeko baimena ematea edo ukatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Jendakareko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 2. artikulua aplikazio-eremuan dauden ekitaldiak egiteko.

Jarraibide honen bidez, eskumen horren kudeaketan jarraituko den irizpidea jaso nahi da, denek jakin dezaten.

Alde horretatik, irizpidea udalerriko eremu jakin batzuk bereizteko beharretik abiatzen da, eremu horiek bereziki adierazgarritzat jotzen direlako eta, ondorioz, establezimendu-kontzentrazio handiko eremuetan merkataritza-jarduerak normaltasunez garatzen direla bermatzeko. Hauek izango dira espazio horiek:

- EUSKAL HERRIA plaza
- KALE NAGUSIA
- PLAZAOLA kaleko parkea (elizaren atzealdea)
- LAUBIDE auzoko oinezkoen kalea

Instrucción de Alcaldía en materia de autorización de espectáculos públicos en determinadas zonas del municipio.

La Disposición Adicional Primera de la Ley de Instituciones Locales de Euskadi, señala que entre las normas que dictan los Ayuntamientos se encuentran los "Decretos e instrucciones de alcaldía: Disposiciones de carácter general dictadas por el alcalde o alcaldesa, en el ámbito de sus competencias, de naturaleza tanto organizativa como de ordenación social".

Es competencia indudable de esta Alcaldía la concesión o denegación de la autorización para el uso de los espacios públicos para la celebración de eventos que se encuentren en el ámbito de aplicación del artículo 2 la Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas del País Vasco.

A través de esta Instrucción se pretende plasmar, para general conocimiento, el criterio que se va a mantener en la gestión de esta competencia.

En este sentido el criterio parte de la necesaria diferenciación de unas determinadas zonas del municipio por considerarlas especialmente representativas y garantizar el normal desarrollo de las actividades comerciales en zonas de alta concentración de establecimientos. Dichos espacios serán:

- EUSKAL HERRIA PLAZA
- KALE NAGUSIA
- PLAZAOLAKO PARKEA (trasera de la iglesia)
- BOULEVARD LAUBIDE



**LEGAZPIKO
UDALA**

Dokumentu hau egiazkoa dela
07E700688E100Y9G8E3S2H5M2F4S9
X9S0L5S1M8
kodearekin egiazta daiteke
ondorengo Entitatearen Egoitza
Elektronikoan

SINATZAILA - DATA
ERIC GALVEZ ALVAREZ(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Alkatea - 06/09/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 06/09/2023
09:11:52

EXPEDIENTE ::
2023LIBR00020
Esp.Data: 05/09/2023
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO
GENERAL

CSV: 07E700688E100Y9G8E3S2H5M2F4S9X9S0L5S1M8





LEGAZPIKO UDALA

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • www.legazpi.eus

Espazio horietan, Euskal Autonomia Erkidegoko Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren 10/2015 Legearen aplikazio-eremuan sartzen diren ekitaldiak kasu hauetan baino ez dira baimenduko: Udalak antolakuntzan nolabait parte hartzen edo laguntzen duen ekitaldi edo jarduerak direnean, edo, udaleko gobernu-taldearen iritziz, Legazpiko herritarrentzat interes berezia duten jarduerak direnean.

Jarraibide hau baimenak emateko espedienteen eraginpean dauden udal-zerbitzuei jakinaraziko zaie, jakinaren gainean egon daitezten eta interesdun izan daitezkeenei informazioa eman diezaieten. Jarraibidea GAO n eta udalaren webgunean ere argitaratuko da, ordenantzekin batera, jende guztiak horren berri izan dezan.

Eta jarraibidea oinarria izango da hura eman ondoren izapidetu daitezkeen espedienteak ebazteko, beraz sinatzen den unetik indarrean sartuko da.

Nire sinadura elektronikoan jasotako egunean Legazpiko alkate gisa ematen dudana jarraibidea.

En dichos espacios, los eventos que queden englobados en el ámbito de aplicación de la Ley 10/2015 de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas del País Vasco, **solo** serán autorizados cuando sean eventos o actividades en las que el Ayuntamiento participe o colabore de alguna manera en su organización, o sean actividades que, a juicio del equipo de gobierno municipal, presenten un especial interés para la ciudadanía legazpiarra.

Esta Instrucción se pondrá en conocimiento de los servicios municipales que se ven afectados por los expedientes de concesión de autorizaciones a los efectos de su conocimiento e información a los posibles interesados. La Instrucción se publicará en el BOG y también en la web municipal junto a las Ordenanzas para general conocimiento.

Y la Instrucción servirá de base para la resolución de los expedientes que pudieran tramitarse a partir de su emisión, por lo que será ejecutiva desde su firma.

Instrucción que emito como Alcalde de Legazpi en la fecha recogida en mi firma electrónica.



Dokumentu hau egiazkoa dela
07E700688E100Y9G8E3S2H5M2F4S9
X9S0L5S1M8
kodearekin egiazta daiteke
ondorengo Entitatearen Egoitza
Elektronikoan

SINATZAILA - DATA
ERIC GALVEZ ALVAREZ(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Alkatea - 06/09/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 06/09/2023
09:11:52

EXPEDIENTE ::
2023LIBR00020
Esp.Data: 05/09/2023
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO
GENERAL

CSV: 07E700688E100Y9G8E3S2H5M2F4S9X9S0L5S1M8

